

# Vitoria-Gasteiz

# GREEN DEAL



# Vitoria-Gasteiz

## GREEN DEAL



## HIRIAREN ETORKIZUNERAKO ITUNA EKONOMIA BERDEA, GIZARTE-KOHESIOA ETA INGURUNE NATURALA



**Gorka Urtearan Agirre**  
*Gasteizko alkatea*

2019ko irailaren 6an, "Global Green City" hautatu zuen Gasteiz Nazio Batuen Erakundeak bultzatutako erakunde batek. Hiria landu eta ulertzeko modu jakin batean oinarriturik joan den mendeko 80ko hamarkadaz gerostik egin den bidean kokatu beharra dago aitortza hori. Ibilbide horretan, hain zuzen ere, mugarri aipagarria dugu 2012 urteko Europako Green Capital izendapena. Hainbat garai eta ideologiatako pertsona ugari parte hartu duten ibilbide osoari dagozkio, bada, garapen iraunkorraren arloko lanaren aintzatespen horiek, eta aukera eman digute hiria garapen iraunkorraren nazioarteko erreferente bihurtzeko.

2019ko otsailaren 7an, Estatu Batuetako biltzarkide gazteen Alexandria Ocasio-Cortez-ek "Green New Deal" izeneko proposamena argitaratu zuen, klima aldaketaren kontrako eta eraldaketa ekonomikorako plan handinahi bat, zein mundu osoko pertsona eta erakunde askorentzat erreferente bihurtu baita. Horren haritik, Europako Batzordeko presidente Ursula Von Der Leyenek "European Green Deal" bat aurkeztea proposatu du. Eusko Jaurlaritzak ere, 2019ko ekainaren 30ean, larrialdi klimatikoa deklaratu zuen, eta Gasteizko Udalak berak bere egin du adierazpen hori.



Mundu mailako eszenatoki berri baten aurrean gaude, baina oraindik ere gutxi dira neurri zehatzak hartzen ari diren erakundeak. Klima-aldaketaren ondorio ekonomikoak, ingurumenaren arlokoak eta sozialak agerikoak dira dagoeneko, eta larritasun gabe baina ausardiaz jokatzeko unea da, elkarrizketa eta akordioa direla medio.

Hiriaren aldeko itun bat da Gasteiz Green Deal, hurrengo belaunaldien etorkizunaren aldekoa, baita planetaren aldeko ituna ere. Gure bizi-kalitate handia sendotzeko eta etorkizun ekonomiko eta sozial sendo eta bideragarri baten oinarriak finkatzeko itun bat, akordio zabal eta plurala, bilatu beharreko horizonteari buruzko ikuspegi askotarikoak baina osagarriak biltzea helburu duena. Ekintzak zehaztu nahi dira itunaren bitartez, hitzetatik ekintzetara pasatu, eragin nabarmena izan dezan, beharrezkoa dugun eraldaketari ekinez, horretarako prestatuz.

## GASTEIZ, ALDAKETAREN BURU IZATEKO GAI DEN HIRIA

Iraunkortasunaren mundu mailako erreferentzia bihurtu duen aldaketa egiten jakin du gure hiriak. Hainbat hamarkadako lanari esker izan da posible aldaketa hori, hainbat hautu politikotako pertsonak printzipio komun batzuk partekatu baitituzte, eta iraunkortasun urbanoaren mundu mailako erreferente handia izateko aukera eman baitigu horrek. Gure inguruan planeta bizitzen ari den eraldaketa handi horri heltzeko gai den hiririk baldin bada, Gasteiz da hori. Trantsizio "berde" hori aurrera eramateko gai izan behar dugu orain, hiriaren eredu ekonomiko eta soziala gauzatzeko.



**2000**

*Nazio Batuen Erakundeak munduko 100 ekimen onenen artean aukeratu du Eratzun Berdea, Jardunbide Egokien Hirugarren Lehiaketan.*

Baina erronka horiek guztiak orobat dira aprobetxatu beharreko aukera handiak. Asko dago egiteko, eta bat egiten badugu, eta erabakitasunez lan egiten, lor dezakegu aldaketa horietatik hiri hobea ateratzea, puntako zerbitzu publikoekin, ekonomia dinamiko eta modernoarekin eta jarraitu beharreko eredu izaten jarraituko duten azpiegitura berdeekin.

Etengabe bere identitatearen bila diharduen hiria dugu, baina, egia esan, badu identitaterik, Green da, beste askorentzako eredu; bihur dezagun gure marka, gure nortasun-ikurra, etorkizunerako aldaketarako palanka.

Oraintsuko historiak erakutsi digu badakigula nola ekin hiri-aldaketa handi bati; gainera, eredu ekonomiko eta industrial sendoa dugu, badakigu zer-nolako balioa duten hitzartzeak eta akordioetara iristeak gauza handiak lortzeko. Horiek dira aurrean dugun erronkarako behar ditugun osagaiak. Egin dezagun posible Gasteiz hiriaren bigarren trantsizio hori.

Ingurune instituzional sendo eta egonkorra du gure hiriak, garapen-maila handikoa. Gure autogobernuari esker, gai izan gara egitura instituzional bati forma emateko, eta horrek ahalbidetu du maila gorena lortzea giza garapenari eta garapen ekonomikoari dagokienez.

Garapen iraunkorrari gagozkiolarik, mugikortasuna dugu funtsezko elementuetako bat. Gasteiz erreferentea da mugikortasun iraunkorraren arloan ere, oinezkoen eta bizikleta bidezko mugikortasunak garapen handia izan baitu; hiri aitzindaria da, eta erreferentea, superretxadiak ezartzeari dagokionez, eta garraio publikoaren sistema sendoa du, etengabe garatzen ari dena. Baita tranbia edo autobus elektriko adimentsuaren gisako munta handiko proiektuak bultzatuz ere, edo berrikuntzaren bidez, hala nola Mobility Lab proiektuaren bitartez. Ezaugarri horiek guztiek eszenatoki ezin hobea bihurtzen dute Gasteiz



**2006**

*Klimaren arloko Tokiko Jardunbide Egokien I. Saria, Klimaren Alde Espainiako Hirien Sareak emanda*



**2010**

*Gasteiz 2012ko Europako Hiriburu Berde izendatzea*

lehen mailako hiri-laborategia izateko mugikortasun iraunkorraren arloan, negozio-aukera berriak aztertuz, eta bidenabar hiriko bizi-kalitatea hobetzeko mugikortasun-irtenbideak.

Baina, hiri berde gisa erreferentziazko leku gisa posizionatzeko aukera eman digun zerbait izan bada, hiri-azpiegitura berdeen arloan egindako lana izan da hori —bereziki, eraztun berdea nabarmendu beharra dago—. Biztanle bakoitzeko 40 m<sup>2</sup> inguru berdegune dugu, eta nazioarteko erreferentziazko hiri bihurtzen du ratio horrek gurea, puntako proiektu eta zerbitzuekin. Hor ere aukera handia dugu lan horri bultzada bat emateko, eraztun berdea indartzeko eta azpiegitura horiek garatzen jarraitzeko aukerak arakatzeko, eta horien garapena hirian duten inpaktu ekonomikoarekin gehiago lotzen saiatzeko.

Gure espiritu berdea nabarmentzen dugu, baina ez dugu ahaztu behar hiri industrialara ere bagarela, industrietatik baitatorkigu BPGaren % 30. Hiriko ekonomiaren eta milaka familiarenaren sostengu diren enpresa handiak ditugu. Gure hirian, automobilgintzaren sektoreak pisu handia du. Zenbait azterlanen arabera, European, automobilgintzaren sektoreko lau enplegutik bat arriskuan dago. Beraz, aldaketa-garaiak datozkion industria bat da, eta, horregatik, guztion artean, gure industriarekin trantsizio horretan lankidetzan aritzeko apustu irmoa egin beharra daukagu.

Logistika da babes dezakegun beste indargune handietako bat. Gure hiriaren kokapen estrategikoa eta bertako zenbait azpiegituraren garapena, hala nola abiadura handiko trenaren etorrera edo Jundizen garapen logistikoa, aukera handiak dira hiriko ekonomiari bultzada bat emateko, berrikuntzan eta garapen iraunkorraren ikuspegian oinarrituta.

Gure hiriaren garapenaren aldeko Green Deal batek ez luke zentzurik zerbitzu publikoen hobekuntza eta eraldaketa ere kontuan hartu gabe. Gasteiz da bizi-kalitaterik handiena duen inguru honetako hiria, eta hori zuzenean lotuta dago gure "Green" izaerarekin, baina baita, zalantzarik gabe, ematen diren zerbitzu publikoekin ere. Gizarte-etxeak dira, zalantzarik gabe, horren adierazgarri onena, baina gainerako zerbitzu publikoek ere hala izan behar dute, hala nola garbiketak, hiriko mantentze-lanek, segurtasunak eta gizarte-koehesioak. Hiri-itun handi batek —iraunkortasunaren eta garapen ekonomikoaren aldeko itun batek— gizarte- eta lurralde-koehesioaren ikuspegi argia izan behar du, berrikuntzaren ikuspegia bereganatu eta lehen mailako zerbitzu publikoak izatea ahalbidetuko duten irtenbide iraunkoragoak ekarri.



**2013**

*Hiri Osasungarrien  
Espainiako  
Sarearen Kalitate  
Saria, bizimodu  
osasungarriak  
bultzatzen dituzten  
ekimenak  
sustatzeagatik*



**2016**

*Ingurugiro  
Gaietarako  
Ikastegiaren XX.  
Urteurrena*



**2016**

*Gasteizen  
presentzia Klima  
Aldaketari buruzko  
NBERen 21.  
konferentzian*

## PRINTZIPIO GIDARIAK:

» **Garapen ekonomiko iraunkorra.** Ekonomia dinamikoa, berrikuntzan eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritua, aukera- eta eraldaketa-elementu gisa, zeinetan industria lokala babestuta sentituko den, eta enplegu-aukerak eskainiko dituen ekintzailtza-ekosistema berritzaile bat izango duena.

» **Gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak.** Pertsonak zaintzen dituen hiria, babes sozialeko sistema moderno eta justua duena, auzoen arteko oreka bilatzen duen garapen urbanoa bideratuko duena.

» **Ingurumen-iraunkortasuna.** Ingurune urbano eta natural bat, non ingurumena errespetatzea eta naturguneak berreskuratzea bizi-kalitatea hobetzeko baliagarria izango diren..

## HELBURUAK:

» Isuriak murriztearen arloko helburuak modu zuzen eta sozialki arduratsuan lortzea.

» Kalitateko enplegu berriak sortzea, "Ekonomia Berdearen" paradigmaren barruan.

» Ekintzailtza eta berrikuntza teknologikoa sustatzea hirian.

» Hiriko ehun ekonomikoari laguntzea, "Ekonomia berde"rako trantsizioan.

» Hiriari hobeto konektatuta egoteko eta hiri kohesionatu eta iraunkor gisa duen posizioa indartzeko aukera emango dioten azpiegiturak edukitzea.

» Hiriaren trantsizio energetikorantz jotzea, energia iraunkorren erabilera sustatuz.

» "Green" kultura eta balioak gizartera hedatzea.

» Gizarte-kohesioa indartzea, adineko pertsonen inklusioa eta babesa sustatzen duten proiektuak eta ekimenak bultzatuz.

» Lurraldeari dagokionez kohesionatuta egongo den hiria finkatzea, hiriko auzoen arteko oreka dela medio.



Certified  
Destination

**2016**

Gasteizek  
Biosphere  
Destination  
ziurtagiria lortu du  
turismo-helmuga  
jasangarri gisa



**2018**

Ingurumenaren  
Kongresu  
Nazionalaren  
omenaldia Gasteizi,  
Eratzun Berdearen  
25. urteurrenean



**2018**

Iraunkortasunaren  
aldeko Hiri eta  
Herrien 8.  
Konferentzian  
'Euskal  
Adierazpena' sinatu  
dute

## LAN-ARLOAK:

» Industria- eta manufaktura-ekoizpen garbiaren hazkundea sustatzea, energia berriztagarrien industria bultzatuz.

» Hiriko automobilgintzaren sektorea bertan gertatzen ari diren aldaketetara egokitzea, berrikuntzaren bidez, produktu eta zerbitzu berriak bilatuz eta energia garbiagoa erabiliz.

» Klima-aldaketaren kontrako borroka eta horren ondorioetara egokitzeko mekanismoak ezartzea.

» Zerbitzu publiko berriak eta hobeak garatzea, hala nola garbiketa, hondakinen tratamendua, hiriko argiztapena, parke eta lorategien zaintza... Aldaketa bultzatu beharra daukagu, iraunkortasunaren ikuspegi horretatik, lehen mailako zerbitzu publikoak izateko aukera eman diezagun.

» Mugikortasun-, kultura- eta zerbitzu-azpiegitura berriak garatzea hirian, emisioak murrizten eta gizarte-kohesioa hobetzen lagundu dezaten.

» Zerga- eta finantzaketa-ingurune iraunkorra garatzea, itunaren helburuekin bat etorriko dena, gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneari oinarritua eta "Green" izaerako proiektu eta ekimenak babestean zentratua.

» Hiriko garraio- eta mugikortasun-sistemak berrikustea, hirian garraio publikoaren eta pribatuaren kutsadura eta emisioak murrizteko. Bereziki, 0 emisioko ibilgailuak bultzatuz, eta orobat bizikletaren erabilera eta oinezko joan-etorriak, garraio publiko garbi, irisgarri eta kalitatezkoa garatuz eta Abiadura Handiko Trena ezarriz. .

» Elektrizitatea sortzeko sistema iraunkorrak garatzeko lan egitea.

» Hiriko kale eta eraikinetan energia garbiak, berriztagarriak eta 0 emisioakoak ezartzea.

» Birgaitze eta berroneratze urbanoa, irisgarritasun-irizpideekin, lehendik dauden eraikinen egokitzapena bultzatuz eta energia- eta ur-kontsumoari dagokionez iraunkorragoak izango diren eraikin berriak eraikiz.

» Nekazaritza-ekoizpen iraunkorrerako irtenbide berriak garatzea nekazaritza- eta basogintza-sektorearekin, berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko, familia-ustiatzei lagunduz eta lurzoruen osasuna areagotzen duten nekazaritza-jarduerak garatuz, eta baso-ustiapen iraunkorra bultzatuz.



**2018**

Hiria Hirigintza Ekosistemikoaren Gutunari atxikitzeko sinadura



**2019**

Gasteiz Global Green City izendatzea



**2019**

"Herritarren eragin handiagoa" saria, Ecovidrio enpresak garapen iraunkorrekiko eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekiko

» Elikadura iraunkor eta osasungarriaren eredia sustatzea, 0 km-ko elikagaiak eta energia- eta ur-kontsumo txikiko elikagaiak ekoizten lagunduz eta etxeetan eta dendetan elikagaien xahuketa murrizteko ekimenak garatuz.

» Biztanleria zahartzearekin eta klima-aldaketaren eta poluzioaren ondorioekin lotutako osasun-esparruan irtenbideak ikertu eta garatzea.

» Hiriaren aztarna ekologikoa —hedadura halako lau— konpentsatzea ahalbidetuko duten azpiegitura berdeak sendotu eta eraikitzea. .

## **KONPROMISOAK:**

» Hemendik eta 2030era arte, proiektu eta ekimen espezifikoen multzo bat bultzatzea, zein jarduera-plan bateratu batean jasoko baitira, gorago adierazitako helburuei erantzuteko —2020. urtean aurkeztu da plan hori jendaurrean—.

» Konpromisoen jarraipena egiteko eta kontuak emateko lantalde bat sortzea.

» Gardentasuna, partaidetza eta herritarren eta eragile sozial eta ekonomikoen inplikazioa sustatzea hartutako konpromisoen garapenean.

» Gasteiz Green Deal-aren barruan garatzen diren ekimenak giza baliabidez eta baliabide ekonomikoz hornitzea.

» Itun honen esparruan hartutako konpromisoak eta egindako aurrerapenak defendatu eta zabaltzea, beste eragile batzuk inplikatzeke eta beste erakunde batzuentzat eredu izan daitezen.